



ARLOA

KULTURA ETA ARTEA

GAIAK

Bibliotekak, tailerrak, Kultura Kreaktibo txartela, aretoak, agenda, sarrerak, Herri Arte eskola, literatura, IKT.

Zer egin dezaket bertan:

- Herriko kultur eskaintzari, zerbitzuei eta programazioari buruzko informazioa jasotzea.
- Kultura Kreaktibo txartelari buruzko informazioa jasotzea.
- Kultur ikastaro, tailer eta jardueretan izena ematea.
- Sorkuntza artistikorako eta parte-hartzerako baliabideak ezagutzea.
- Elkarreentzako espazio eta laguntzei buruzko informazioa jasotzea.

Gaitasun ekonomikoaren araberako tarifak:






Las tarifas de distintos cursos y servicios se establecen en función de la capacidad económica de cada persona usuaria. El impreso correspondiente deberá entregarse junto con la solicitud del curso o servicio.

Baliabideak:

- **Kultura Kreaktibo txartela.** Liburutegia erabiltzeko eta hainbat kultur ekintzetako sarreretan deskontuak lortzeko balio duen doako txartela da.
- **Lekuona Fabrika:** informazio, ezagutza eta aisialdirako sarbide anitzak eskaintzen dituen kultura gunea.
- **Xenpelar tailerrak** arte plastiko, ikusizko arte eta artisautzako ikasturteko tailerrak dira.
- **Herri Arte Eskola:** 4 urtetik gorako herritarrentzako arte hezkuntzarako eskola publikoa da (musika, dantza, antzerkia, arte plastiko-ikusizkoak, hitza, hastapen artistiko multidiziplinarra).
- **Aldakoneako Udal Biblioteka:** literatura, prentsa, ordenagailuak, biblioteka txartela eta kultur ekimenak.
- **Torrekua:** Ekonomia Sozial Eraldatzailearen eta Teknologia Libreen atea. Espazio kooperatibo/interkooperatibo eta komunitario bat da. Ekitaldi, hitzaldi, programazioa eta ikastaroak antolatzen dira publiko orokorarentzat.

Kultura Saila – Informazio orokorra

Errenteriako Udaleko Kultura Sailak kultur eskaintza, ekipamendu eta jardueren programazioa koordinatzen eta kudeatzen du.

 Kokapena Lekuona fabrika	 Ordutegia Astelehenetik ostiralera: 09:00– 14:00	 Telefonoa 943 449 634
 Helbide elektronikoa kulturakreaktibo@ errenteria.eus	 Webgunea www.kultura.errenteria.eus/es/	

Gaitasun ekonomikoaren araberako tarifak

Informazio gehiago, eskabide orriak eta simulatzailea:

 **Webgunea**
www.errenteria.eus/su/progresibitatea

Kultura Kreaktibo txartelaren inguruko xehetasunak

Txartela beharrezkoa da bibliotekako materialak maileguan eramateko eta bertako ordenagailu eta bideojokoetan jolasteko. Era berean, Euskadiko Irakurketa Publikoko liburutegi guztietako bazkide izango zara eta Errenteriako Udalak antolatzen dituen ekitaldi kulturaletan %25ko deskontua eskuratu ahal izango duzu.






 **Non eskuratu:** Lekuona Fabrikako 0. solairuko harreran eta Aldakoneako Bibliotekan.

Inprimakia eskatu harrera mostradorean. Helduek NAN, AIZ edo pasaportearen aurkezten behar dute. Haur eta gazteek (0-14) heldu baten baimena behar dute.

Lekuona Fabrika

0. solairuko harreran Kultura Kreaktiboaren txartelaren kudeaketaz gain, kultur agendaren informazioa, kultur ekintzetarako izen-emateak eta sarreraren salmenta ere eskaintzen dira.

- Zerbitzuak: Liburutegia, Herritar Plaza, Xenpelar tailerrak, Elkarteei zuzenduriko zerbitzuak, Sorkuntza artistikoa.
- Erabilpen librerako ordenagailuak daude eta baita inprimagailua eta eskanerra ere. Zerbitzu hauek guztiak doanik dira (inprimagailuan 10 orri, gehienez). WiFi librea ere eskuragarri, eraikin osoan.
- Lantegia, Lekuona Fabrikako bigarren solairuan, eta Aldakonea liburutegiko bilera gelak, herritarrek erreserbatu ditzaketen espazio itxiak dira. Talde lanak edota bilera soziokulturalak egiteko lekuak dira. Izaera honetakoak ez diren edota irabazi-asmoa duten jardura pribatuetarako ezin dira erabili.

 Kokapena Ugarritza etorbidea, 1	 Ordutegia Negua (A-O 9:00-20:00 · L 9:00-13:30) Uda (A-O 9:00-14:30)	 Telefona 943 44 96 34
 Helbide elektronikoa kulturakreaktibo@errenteria.eus	 Webgunea www.kultura.errenteria.eus/	

Herri Arte Eskola

Diziplina artistiko ezberdinetan bidea egiten hasi eta goi-mailako ikastegietarako sarrera frogak prestatu arteko maila egokitua eskaintzen du (4 urtetik aurrera adin mugarik gabe).

Teknika, sormena eta adierazpen artistikoa sustatu nahi dira era berean herritar guztientzako garapen pertsonala, soziala eta profesionala bultzatuz.

Hezkuntza programa zabal bat du proiektu eta emanaldien parte-hartzearekin, hitzordu kulturaletara irteerak burutuz, irakasle eta artistak gonbidatuz...

Instrumentuen mailegu eta instalazioen erabilerarako erraztasun handia.

 Kokapena Alfonso XI kalea 6	 Ordutegia A-O 10:00-13:00 / 16:30-20:00 O 10:00-13:00	 Telefona 943 44 96 33
 Helbide elektronikoa info@arteskola.eus	 Webgunea www.arteskola.errenteria.eus	

Xenpelar tailerrak

 **Webgunea**

www.kultura.errenteria.eus/es/proyectos/xenpelar-tailerrak/

Aldakoneako Udal Liburutegia

 Kokapena Aldakonea kalea 2, 2. solairua (Beraun)	 Ordutegia Negua 16:00 – 19:30 Udara 09:00 – 14:00 (abuztua itxita)	 Telefonoa 943 44 96 99
 Helbide elektronikoa: biblioteka.aldakonea@errenteria.eus	 Webgunea www.kultura.errenteria.eus/proiektuak/udal-biblioteka/nor-gara/aldakonea/	

Torrekua

 Kokapena Orereta kalea, 7	 Ordutegia Astelehenetik - Ostiralera 10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:00
 Helbide elektronikoa info@torrekua.eus	 Webgunea www.torrekua.eus